

argitalpena

Ikurriñaren erabilera baimendu zutenekoa 'Danbolin'-en

Zestoako herri aldizkari *Danbolin*-ek, ikurriña baimendu zuteneko 25. urteurrena dela eta, erreportai berezia kaleratu du urtarri-leko alean. Zestoan izan ziren ikurriñaren zenbait agerraldi ekarri ditu gogora. Horretaz gain, ikurriña nola sortu zuten ere azaltzen dute *Danbolin*-en. Arana Goiri anaiak izan ziren haren diseinatzaileak.

danbolin



Argitaratzailea: **Danbolin zulo elkarte**.

jaia

San Bizenteko jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar, Barakaldon

Aste osoan zehar ari dira Barakaldon San Bizente jaiak ospatzen, eta asteburuan ekitaldi nagusiak egingo dituzte. Gaur goizean txistulariek esnatuko dituzte bart ordu txikiak arte parrandan geratu direnak. Haiekin batera, erraldoiek eta buruhandiek kaleak girotuko dituzte. Elizaurreko plazan haurrak bilduko dira, bertan antolatuko dituzten josaletan parte hartzeko. Arratsalde partean berriz, koadrilak



EGUNKARIA

Bakailao txapelketan ariko dira bihar goizea

musika

AGURAIN. Ortophonk. Bihar, Harresi aretoan, gaueko 22:30ean.
ARETXABALETA. Urbil eta Txomin Artola. Gaur, udaletxe zaharrean, gaueko 22:30ean.
BAIONA. Baionan Kantuz. Bihar, Lacarre plazan, goizeko 11:00etan.
BARAKALDO. MCD, Conflict Noise, Ultima neurona. Gaur, gaueko 23:00etan.
Miguel Poveda eta Chicuelo (flamenkoa). Gaur, gaueko 23:00etan, Barakaldo antzokian.
Los palmeras. Gaur, San Bizente plazan, gaueko 22:00etan.
Kalima. Gaur, Laguntasuna txosnan, gaueko 23:00etan.
BERA. Zelig. Gaur, gaueko 22:30ean, Pui ostatuan.
BERGARA. Iced Esrth. Bihar, gaueko 22:00etan, Jan aretoan.
BESKOITZE. Akelarre. Bihar, gauean, plazan.
BILBO. 'Le nozée di Figaro' (opera). Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Euskalduna jauregian.
Benito Letxundi. Gaur, 20:00etan, Deustuko Salestarren ikastetxean, Berbaizuk antolatuta.
Ratones koloraos, Embrace me ocean, Gyob, Azken garaia. Gaur, gaueko 22:00etan, Azkena aretoan.
Segismundo Toxicomano, MCD. Bihar, gaueko 22:00etan, Azkena aretoan.
Tontxu. Gaur, gaueko 21:30ean, Bilborock aretoan.
'La canción del olvido' (zartzuela). Bihar eta urtarilaren 27an, Arriaga antzokian.
DONOSTIA. Godspeed you Black Emperor. Bihar, gaueko 21:00etan, Egia kultur etxean.
Sabor ácido, Ira et decesus. Bihar, gaueko 21:00etan, Intxaurrendoko gaztetxean.
Gontzal Mendibil eta Bratislavako orkestra. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Kursaaalean.
DONOSTIA. Sambahía. Gaur, gaueko 23:30ean, Cantanate Kandela aretoan.
Rarefolk. Bihar, gaueko 23:30ean, Cantante Kandela aretoan.
ELGOIBAR. Barricada, Spezial quest, Humus. Gaur, gaueko 22:15ean, gaztetxean.
ERMUA. Mala Rodríguez. Gaur, gaueko 22:15ean, Zineman.
GASTEIZ. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gaur, arratsaldeko

musika

Barricada, Humus, Special quest. Gaur, Elgoibarko gaztetxean (22:15ean).



Barricada, garai zaharretan bezala, Elgoibarko gaztetxean

Barricada aspaldian dago ohituta taula handietan kontzertuak ematen.

Gaur, ordea, Iruñeko Txantrea auzokoek bere hastapenetan egiten zuten antzera gaztetxe batean joko dute, Elgoibarkoan, hain zuzen. 'Drogas' eta gainerako taldekideak, Humus eta Special quest taldeekin batera ariko dira, gaueko 22:15etik aurrera.

20:00etan, Principal antzokian.
GETARIA. Javier Arrillaga (latinamerikar musika). Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Alondigan.
IRUN. Kepa Junkera. Bihar, Amaia KZn, arratsaldeko 20:00etan.
LASARTE-ORIA. Oskorri. Gaur, gaueko 22:00etan, Kultur Etxean.
MAULE. 4 itzal. Gaur, Zinka ostatuan, arratsaldeko 20:00etan.
OIARTZUN. Dj Etxehouse, Jesus Vera. Gaur, Pagoa aretoan, gauean.
Surgeon, Kaiet. Bihar, Pagoa aretoan, gauean.
TOLOSA. Jabier Muguruza. Gaur, Kultur Etxean, 22:30ean.
VILLABONA. Kepa Junkera. Gaur, Olaederra kiroldegian, gaueko 22:30ean.

antzerkia

BARAKALDO. 'Spingo'. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:30ean, Yllanaren eskutik, Barakaldo antzokian. Urtarrilaren 27an, arratsaldeko 20:00etan izango da.
BASAURI. 'El porque de las cosas'. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Social antzokian.
'Hor dago koxka'. Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Social antzokian, Tanttakaren eskutik.
BEASAIN. 'Komeriaka'. Bihar, gaueko 22:15ean, usurbe antzokian, Tentazioak taldearen eskutik.
BERMEO. 'Izarretako bitakora'. Gaur, gaueko 21:00etan, Nestor Basterretxea aretoan, Maskaradaren eskutik.
BILBO. 'Krámpack'. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:00etan eta 22:30ean; eta urtarilaren 27an, 20:00etan, Aiala antzokian, Septiembre teatroren eskutik.
'Días felices'. Bihar eta urtarilaren 27an, La Fundación aretoan, Ana Lucia Billate eta Fernando Mikelajauregiren eskutik.
'Servicio de ayuda a la mujer'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Bilborock aretoan.
'Memoria del fuego'. Urtarrilaren 27an, arratsaldeko 20:00etan, Bilborock aretoan.
DONOSTIA. 'Dulce puta' eta 'Sobre los perjuicios del tabaco' antzezlanak. Gaur, bihar eta urtarilaren 27an, 20:00etan, Lugaritz kultur etxean, Itziar Lazkano eta Ramon Barearen eskutik.
ELORRIO. 'La tentación vive

arriba'. Gaur, gaueko 22:30ean, Arriola kultur aretoan, Nearco Produccionesen eskutik.
GALDAKAO. 'Sara y Eleonora'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Torrezabal kultur etxean, Burbujas taldearen eskutik.
GERNIKA. 'Mugamundu' txotxongilo lana. Urtarrilaren 27an, Kultur Etxean, Behi Bi's taldearen eskutik, arratsaldeko 16:30ean.
GETXO. 'La casa de Bernarda Alba'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Getxo antzokian, Izarraitz taldearen eskutik.
'Alizia, Bitxikerien lurraldean'. Bihar, eguerdiko 13:00etan (gaztelaniaz), eta 18:00etan (euskaraz), Getxo antzokian, Dar Dar taldearen eskutik.
MIARRITZE. 'Des souris et des ...'. Gaur, gaueko 21:00etan, Colisée aretoan.
ORDIZIA. 'Concierto desconcierto'. Gaur, gaueko 22:15ean, Usurbe antzokian, Psicosis Gonsalesen eskutik.
ZUMAIA. 'Urak dakarrena...'. Gaur, gaueko 22:00etan, Aita Mari aretoan, Glu Glu taldearen eskutik.

bertsolaritza

AIZARNAZABAL. Bertso-afaria: Anjel Mari Peñagarikano eta Amets Arzallus. Gaur, gauean.
BILBO. Bertso-afaria: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina. Gaur, gaueko 21:30ean, Kafe Antzokian.
DEBA. Jon Maia, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Aitor Sarriegi, Nerea Elustondo. Gaur, gaueko 22:30ean, Zubeltzu zineman.
DONOSTIA. Bertso-eguna: Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Xebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Xabier Silveira. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Kursaaalean, Eneko Olasagastik zuzenduta.
Bertso Egunaren bigarren zatia: Anjel Mari Pañagarikano, Iñaki Murua, Nerea Elustondo, Iratxe Ibarra, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi, Unai Agirre, Joxe Munduate, Oihane Enbeita, Ainhoa Agirreazaldegi, Joxe Lizaso, Xabier Amuriza, ... Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Kursaaalean.
IURRETA. Xebastian Lizaso. Urtarrilaren 27an, eguerdiko